



Saioa AGINAKO LAMARAIN
Psikoterapeuta

Amatasuna aukera bat da

Baliteke zure gaztaroan «nik ez dut ama izan nahi» bere buruari esaten zion pertsona horietakoa izatea. Orain, ordea, kontraesan eta zalantzaz betetzen zaituen desira ulertezina piztu zaizu. Are gehiago, baliteke guztiz kontrakoa izatea; beti argi izan duzu haurrak eduki nahi zenituela, eta, gaur egun, dena da zalantza.

Lehenik eta behin, ama izan nahi duzun edo ez ez-jakitea esperientzia normala eta ulergarria da. Egia esan, espazio gutxitan balora daiteke errealitate hori epaitua sentitu gabe. Zure arrazoiak benetako irrika pertsonal batetik edo amatasunaren gaineko kanpoko presioetatik sortzen diren ulertzeak erabaki kontzienteagoa hartzen laguntzen du. Gogoratu, askotan, emakumeok narratiba sozial eta kulturalak baldintzatzen gaituztela.

Era berean, ama gehienek ia denagatik jasotzen dituzte kritikak. Modu naturalean erditu beharrean zesarea bidez erditu delako, edoskitzaroa ez eskaintzeagatik, erditze osteko depresioak jasateagatik, bere emozioak kudeatzeko moduagatik, haurra zaindu beharrean lan egiteagatik, telefonoa uzteagatik edo ez uzteagatik, telebista asko ikusten duelako...

Hau da, emakumearen gorputza berea dela uste duen sistema etengabe ari da amaren trebetasuna zalantzan jartzen. Baliteke arazo ez izatea, noiz-behinkako gertaera balitz. Baina, azkenean, emakumearen segurtasuna ahultzen duen eguneroko bihurtzen da.

Amak ez dira beste planeta batetik datozen izakiak, kasu askotan hala dirudien arren. Pertsona arruntak dira, bizitza arruntak dituztenak. Bizi ahal izateko lan egin behar dute, gainerako pertsonak bezala, atsedean hartzeko denbora behar dute. Gizarteak

ametikiko dituen itxaropen handiek batzuetan jasateko zaila den presioa eragiten dute: alderdi asko dituzte, erantzukizunak, eta guztietan ahalik eta ondoen errenditu behar dute.

Denok behar dugu gelditu eta arnasa hartu, energia kargatu edo jardueraz aldatu. Guraso garenean, premia horiek biderkatu egiten dira, eta geure burua zaintzeko denbora eta espazioa ateratzea erronka handia da.

Jaiotzen direnetik, emakumeak beren zaintza-, kontsolamendu- eta babes-trebetasunak garatzera animatzen dira. Jarrera "femeninoak" indartzen dira. Neskei zerbitzariak, babesleak eta amatasunezkoak izaten irakasten zaie. Pixkanaka-pixkanaka, rol hori bete behar dutelako ideia transmititzen zaie, hau da, beskeen zaintza, batez ere seme-alabena, eta horrek zentzua emango dio haien existentziari. Hain gizarte baldintzatuan, amatasuna gauzatu nahi ez duten emakumeek ezin konta ahala oztopo aurkitzen dituzte. Berekoitzat eta konorterik gabekotzat jotzen dituzte, eta ondorengorik ez izatea era-

bakitzen badute damutu egingo direla ziurtatzen zaie. Gizarteak emakumea eta amatasuna lotuta ikusi ditu urte askotan zehar. Seme-alabarik izan nahi ez duten edo ez izatea erabakitzen duten emakumeak beti egon dira. Baina gaur egun errazagoa da hori adieraztea, emakumeak lehen erabiltzen ez zituen espazioei eta bere eskubideak aldarrikatzen dituzten taldeei esker.

Gizartean bizitzean, ideia eta kontzeptu batzuek inguratuta hazten gara, normala denaren, desiragarria denaren eta gure bizitza bideratu behar dugun noranzkoaren arabera. Gizaki bakoitzak bere bidea aukeratzeko askatasuna izan behar du, eta amatasuna aukera pertsonala baino ez da. Emakume bakar bat ere ez litzateke ama izatera behartuta sentitu behar, amatasuna bete-betea bizitzea erabakitzegatik inor epaitu beharko ez litzatekeen bezala. Azkenik, benetan garrantzitsua da gure nahiez jabetzea, gure barruarekin kontaktuan egotea eta gure irriekin koherenteak izatea.

saioaaginako@gmail.com



Ama gehienek ia denagatik jasotzen dituzte kritikak. Andoni CANELLADA | FOKU